

OIARTZUNGO UDALEKO ALKATE ETA ZINEGOTZIEN JARDUNERAKO KODE ETIKOA

Zioen azalpena

Gaur egun ia adostasun osoa dago administrazio publikoa kudeatzeko garaian eduki beharreko irizpideen inguruan: gardentasuna, interes publikoa nagusi izatea, kargu publikoa alderdiaren edo norberaren xedeetarako ez erabiltzea, karguarengatik eduki daiteken informazio pribilegiatua ez erabiltzea norberaren onurarako, legeria zehatz-mehatz betetzea, administrazioako kontratazioetan publizitate eta konkurrentzia printzipioak, langileen hautaketarako meritu eta gaitasuna, gastu publikoaren kontrol zorrotza, e.a.

Hala ere, eguneroko praktika teoriarengandik urrundu daiteke eta benetako ilegalitate egoerak eman daitezke, edo gutxienez, moraltasunik gabeko egoerak. Oiartzungo udalerraren kasuan, 2003-2007 legealdian gertatutako gorabeherak ikerketa batzorde bat eratzera eraman zuten. Bertan, dagokion datuak, testigantzak eta txostenak jaso ondoren, gobernuan ardura duten kargu politikoek funtzionamendurako kode etiko bat idaztea erabaki da, zeinen bitartez ondoren deskribatzen diren eta beste antzeko edo izaera berdintsuko egoerak saihestu nahi diren.

Plenoaren eskumenen inbasioa eta alde zuzenetik aurrekontuan kontsignaziorik egin gabe gastuaren dispozizioa, eta beste ez-betetzeak, proiektuen idazketa edo obraren zuzendaritzari buruz, hainbat proiektuen kasuan, horietariko bat bereziki Mendibilko Parkearena, legea urratzea suposatzen zuten kontratazioari, ogasun publikoari eta tokiko erregimenari dagokionez. Hainbestera izan zen, alkateak bere eskumenekoak ez ziren obrak exekuzioa agindu zuela, kontraturik gabe, dirurik gabe eta prozedurarik gabe. Parke bakar baten landareri eta konponketan milioi bat euro gastatzeak izan lezakeen kritikaz gain, egia dena da kontratazio irregular eta ilegal honek Udalarentzat aurreikusitako gabeko gastu bat suposatzen zuela, eta azkenean legealdi honetan negoziatu behar izan dela 300.000 €tik gora.

Beste aldetik, lau urteetan ordezkariak gastuak edo dietengatik izandako gastuak Oiartzun bezalako herri batentzat, eta segur aski edozeinentzat, bere gain hartzeko zailak diren diru-kopurua suposatzen dute, ikusita zein kontzeptuetan egin ziren.

Gogora dezagun 183.000 €tako diru-kopuruaz ari garela. Eta, kopuru horretatik 83.000 € bazkari edo afariei dagokienak dira, eta datuak, batzorde honetako zinegotzien ustetan, hain dira eskandaluzkoak ze otordu bakoitzean pertsona bakoitzeko batzordekoak 48 € baino gehiago dira, eta asteburu edo jaiegunetan 11.000 €tik gorako gastua dago. Alkateak Konstituzio egunean, edo Pilarreko egunean edo Santu Guztien egunean bazkaltzera joan behar du Udalaren kontura? Guk uste dugu ez dela moralak udalak ordaintzea Alkatearen soldatarekin ordaindu behar ziren gastu batzuk, eta soldata bera ere ez zen nolana hinkoa data horietan.

Bukatzeko justifikatzen zailak diren hainbat gai aipatu nahi dira, hara nola Udalaren web horri bat kontratatzea eta ordaintzea lana gauzatu gabe, eta prezio izugarri batean adituek diren auditoreen txostenaren baitan.

Bestalde, guztiz onartezina da kargu aldaketarekin Alkate ohiak izandako jarrera. Alkatetzako bulegoetan zegoen dokumentazio guztia berarekin eraman zuen. Dokumentu horien artean aurkitzen ziren zenbait herritarrek tarteratutako eskaera ofizialak, zenbait udal espediente, udalak ordaindutako zenbait azterketa eta proiektu,... horiek guztiak originalak ziren eta egun ez dago horien kopiarik Udaletxean. Jarrera horrek delitu zantzuak izateaz gain, hainbat arazo sortarazi dizkio udalari.

Hau guztiagatik, Batzordeak, gertakari hauek justiziaren esku, horrela balegokio, uzteaz gain, funtzionamendurako KODE ETIKO BAT onartzea proposatzen dio Plenoari, ondoren jasotzen diren aspektuetan oinarritua; horietako asko legezko eduki hutsak dira eta beste batzuk kudeaketa publikoa hiritarren kontrolpean egotearen beharrean oinarritzen dira.

-DEKALOGOA-

A. ALKATE ETA ZINEGOTZIEN LAN JARDUERAKO IRIZPIDEAK

1. Kontratazio administratiboaren legea zorrotz betetzea.
2. Organo ezberdinen eskumenak errespetatzea eta legez aurreikusitako prozedurei arreta jartzea.
3. Idazkaritzan egindako kontrataziorako protokoloa, 2008 urteko araudi berri bat onartu zenean idatzitakoa betetzea. Kode honi eransten zaio.
4. Ezin izango dituzte udaleko espediente originalak hartu eta udaletik eraman. Espediente guztiak eskuragarri izango dituzte. Nahi adina kopia atera ahalko dira. Originalak, baina, udal gordailuan egongo dira gordailatuak.

B. ALKATE ETA ZINEGOTZIEK KARGUAREN ORDEZKARITZAN ETA PROTOKOLO LANETAN EGINDAKO GASTUEN KUDEAKETA:

5. Alkateak ordezkaritza eta protokolorako gastu partida propio bat izango du. Funtzio horietara bideratzen diren gastuak soilik udalarekin zerikusi zuzena dutenak izango dira. Alkateak partida hori karguari dagokion arduraz eta proportzionaltasunez kudeatuko du inolaz onargarri izango ez direlarik helburu pertsonal edo partidu interesak bultzatuta egiten diren gastuak. Era berean onartezinak dira luxuzko kontsidera daitezkeen gastu guztiak.
6. Alkateak hileror ordezkaritza eta protokolo gastuak direla eta egindako gastuen berri emango du Ogasun Batzordearen aurrean. Bertan beharrezkoak diren frogagiri eta bestelakoak aurkeztu beharko ditu.

7. Zinegotziek karguaren egikaritzan izandako gastuak kobratu ahal izango dituzte. Horretarako beharrezkoa izango da kontu-hartzailearen aurrean frogagiri eta bestelakoak aurkeztea. Gastu hauek Ogasun Batzordetik hilean behin pasako dira.
8. Hilabeteko ohiko plenoan, hilabetean zehar Alkate eta zinegotziek izandako gastuen berri emango da. Alkate eta zinegotzien gastuen kontu ematea Ohiko Plenoen gai-ordenan puntu finkoa izatera pasako da.
9. Alkateak ordezkartza eta protokolo gastuetarako Visa txartel bat edukiko du. Txartel hau kasu jakin batzuetara bideratuta egongo da non udalari gastu batzuk egitea dagokion: udalerritik kanpora egiten diren bidaietara, autoritateekin bilera edo ekitaldiak daudenean,... Txartel horren kontrola Kontu-hartzaileak egingo du eta bera izango da txartelaren gordailuzain. Alkateak txartelaren beharra duen aldiro kontu-hartzaileari eskatu beharko dio zertarako behar duen adieraziz.

C. IRIZPIDE OROKORRAK

10. Orokorrean ondoren adierazten den filosofiaren arabera jardungo dute:
 - Agindutako funtzioak toki erakundearen eremuan asignatutako eskumenen arabera betetzea.
 - Bere kudeaketako eremuaren menpe dauden pertsonak errespetatzea, bere lanarekiko satisfazio eta efikazia optimizatuz.
 - Autoritatearen erabilera desegokia saihestea.
 - Bere zuzendaritzaren menpe dauden pertsonak egindako akzioetatik edo omisioetatik erator daitezken ardurak bere gain hartzea.
 - Lanaren plangintza eta antolamendua burutzea, lan horren banaketa, gauzatze eta kalitate kontrola eginez, ahalik eta eraginkortasun handiena bilatuz.
 - Giza baliabideak zuzendu eta kudeatzea, bere taldea osatzen duten pertsonen arteko komunikazio eta formazioaren bitartez.
 - Arauak ez-betetzea suposatzen duten, etikoak ez diren jarduketak suposatzen duten edo beharrezkoak ez diren arriskuak dakarten erabilerarik, ohiturarik edo usadiorik EZ onartzea.
 - Karguari dagokion lan eta jarduketak burutzea ahalik eta ardura eta gardentasun handienarekin.
 - Karguaren ondorioz eskuratutako pribilegiozko informazioan oinarrituz eragiketarik ez burutzea, ez norberak ez eta bere inguruko pertsonen bitartez.
 - Karguaren ondorioz eskuratutako pribilegiozko informazioan oinarrituz jarduketarik ez burutzea, ez norberak ez eta bere inguruko pertsonen bitartez, zinegotziak lotura zuzena edo zeharkakoa duen negozioei edo beste jardueri edo interesei lotutakoak.

- Bere eskura jarritako baliabide material eta giza baliabideak, kudeaketa administratiboaren lanarentzat zorrotz erabiltzea, erabilera partikularrak edo udal jarduketarenak ez diren erabilerak saihestuz.
- Ez egitea inongo kontraturik ondasun, eskubide edo beste obligazioen gain, legez ezarritako prozedura kontuan izan gabe.
- Konfidentzialtasun printzipioa errespetatzea.
- Ez egitea inongo konpentsaziorik, promes edo atentziorik hiritarrei, harreman edo lan pertsonalen ordainetan.